

HEGAZKIN ISTRIPUA IRANEN

Fagor enpresako zuzendaritzako lau kide hil dira negozio bidaian

Fagor Arrasate enpresako zuzendaritzako lau kideek Teherandik Khorramabaderako hegazkina hartu zuten, baina Tupolev 154 hegazkina erori egin zen helmugatik 30 kilometrora. Lau euskal herritarrek ez ezik, gainerako 113 bidaiariak ere istripuan hil ziren, Irango Gobernuak baieztatu zuenez. Gorpuak jasotzeko lanak zailak izango dira, lurraldea oso malkartsua baita eta eguraldi txarra egiten baitu. Fagorreko zuzendaritzako kideak igandean joan ziren Iranera, han autogintzako ekoizpenak sustatzeko. Istripuak samín handia eta erreakzio ugari eragin du Euskal Herrian. Fagorrek lantegiak itxi zituen atzo, eta itxita edukiko ditu gaur ere. /12

HILDAKOAK

Jesus Maria Olazabalaga

I + G eta Kalitate zuzendaria

Juan Carlos Goikoetxea

Erosketa zuzendaria

Julio Ibarra Pastor

Asiarako zuzendari komertziala

Joseba Mirena Azkoaga

Proiektuen kudeatzailea

Ezbeharra non gertatu den



MILOSEVICEN KONTRAKO EPAIKETA



AMEL EMRIC / AP

Srebrenicako emakume musulman batzuk Milosevicen kontrako epaiketa telebistan ikusten, Tuzlan, Bosnia-Herzegovinan.

Motibazio politikorik ez duela esan du fiskalak

Boterea eskuratzeko «krimen larrienen erantzule» izatea egotzi dio presidente ohiari

Slobodan Milosevic boterea besterik nahi ez zuen kriminal gisa aurkeztu zuen atzo Carla del Pontek, Jugoslavia ohiako Hagako Auzitegiko fiskal nagusiak. Atzo hasi zen Milosevicen kontrako epaiketa, genozidioa eta gerra krimenak egiteagatik, eta Jugoslaviako presidente ohiak gaur deklaratu du, bere aholkulari legalak adierazi zuenez. Bestalde, Jugoslaviarako auzitegiari epemuga jartzea aztertzen ari dira AEBak. /21-22

ABERRI EGUNA

Abertzaleen Batasunak Lizarra-Garazira bueltatzeko eskatuko du

«Herriarrei hitza berriz ematea» du helburu, eta martxa bat antolatu du, Lizarratik Garazira /6

ESKOZIA

Gutxienez 121 lagun atxilotu dituzte arma atomikoen kontrako protesta ekitaldietan

Erresuma Batuko urpeko nuklearrek bertan duten base baten aurka ari dira protestan, hirugarren urtez. Atxilotuen artean dira Edinburgoko Legebiltzarreko bi kide. /23

IRRATI LIZENTZIEN BANAKETA

Erantzukizun politiko guztiak ukatu ditu Palaciosek

Nafarroako Komunikazio kontseilariak azpimarratu duenez, Zangozako lizentziak banatzeko prozeduran ez zen botere desbideraketarik egon. Oposizioak dimisioa eskatu du. /13

FUTBOLA

Urzaizek Athleticen jarraitzea «zaila» dela aitortu du Javier Uria presidenteak

Taldearen eskaintzaren eta jokalariren eskaeraren artean «alde handia» dagoela esan du Uriak, eta Urzaizek eskatzen duen diru kopurua dela kontratua berritzeko eragozpen nagusia. Klubak lehenbailehen hartuko du erabakia. /27

